

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

1081

221/2021 EBAZPENA, otsailaren 12koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitara ematen den eranskinean ageri diren esleipendunak estatutupeko langile finko izendatzen direla, Fak. Esp. Psikologo-Kliniko Teknikari kategorian, txanda ireki bidez, destinoa Osakidetzako zerbitzu-erakunde sanitarioetan izanik.

Osakidetzako zuzendari nagusiaren otsailaren 5eko 103/2018 Ebazpenaren bidez, Osakidetzan estatutupeko lotura finkoa lortzeko hautaketa-prozesuak arautzen dituzten oinarri orokorrak onartu ziren (2018ko otsailaren 8ko EHAA 28. zk.).

Osakidetzako zuzendari nagusiaren otsailaren 14ko 123/2018 Ebazpenaren bitartez, Fakultatibo Mediko eta Teknikoen lanbide-taldeko Fak. Esp. Psikologo-Kliniko Teknikari kategorian estatutupeko langile izateko hautaprobeen deialdia egin zen, destinoa Osakidetzako zerbitzu-erakunde sanitarioetan izanik (2018ko martxoaren 5eko EHAA 45. zk.).

Osakidetzako Giza Baliabideen zuzendariaren urriaren 23ko 745/2019 Ebazpenaren bidez, oposizioaldia gainditu duten txanda irekiko izangaien zerrenda Osakidetzaren webgunean argitaratzeko agintzen da, azken puntuazioaren arabera eta lehiaketaldiko puntuazioa eta oposizioaldiko puntuazioa bananduta, Fakultatibo Mediko eta Teknikoen lanbide-taldeko Fak. Esp. Psikologo-Kliniko Teknikari kategorian estatutupeko langile izateko hautaprobei dagokien puntuazioa, hain zuzen ere. Izangai horiek Osakidetzako zerbitzu sanitarioetako erakundeetan izango dute destinoa.

Osakidetzako zuzendari nagusiaren otsailaren 5eko 103/2018 Ebazpenaren 16. oinarrian xedatutakoari jarraikiz, Fak. Esp. Psikologo-Kliniko Teknikari kategorian izangaien behin betiko zerrenda Epaimahaiak onartu eta webgunean argitara dadin Osakidetzako Zuzendaritza Nagusi honetara bideratu ostean eta langileen arloan indarrean dagoen legeriak ematen dizkidan eskumenez baliatuz,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– EHAAan argitaratzeko agintzea eranskinean ageri diren esleipendunak estatutupeko langile finko izendatzen direla, Fakultatibo Mediko eta Teknikoen lanbide-taldeko Fak. Esp. Psikologo-Kliniko Teknikari kategorian txanda ireki bidez, destinoa Osakidetzako zerbitzu-erakunde sanitarioetan izanik.

Bigarrena.– Esleipendunek hilabeteko epea izango dute destinoaz jabetzeko, Ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Osakidetzaren Zuzendaritza Nagusian hartu beharko da destinoaren jabetza; horretarako, hautagaiak hitzordua eskatu beharko du lehenbizi, eta ekitaldian dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

– NANA, pasaportearen edo gidabaimena edo dokumentu baliokidea Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko beste estatu kideren bateko nazionalitatea dutenentzat, edo Europar Batasuneko Itunaren arabera nahiz Espainiak berretsitako beste hitzarmen batzuen babesean nahiz lege arau baten bidez langileak estatu batetik beste batera libre ibiltzeko aukera aplikatzen zaien estatuaren nazionalentzat.

Parte hartzeko eskubidea izanik Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiek nazionalitatea egiaztatzen dien dokumentua aurkeztu behar dute, eta, beste estatu bateko nazionalitatea duen norbaitekiko ahaidetasun-lotura izan edo haren kontura biziz gero, lotura hori dutela egiaztatzen duten dokumentuak ere bai. Era berean, ezkontidearen zinpeko adierazpen bat edo hitzemande bat aurkeztu behar dute beste ezkontidearengandik zuzenbidez bananduta ez dagoela adierazteko eta, hala badagokio, hautagaia haren kontura edo kargura dagoela adierazteko.

– Elkargoko kide izatearen egiaztatzea, deialdiko oinarri espezifikotik hala eskatzen denean.

– Diziplina-espediente bidez hautagaia administrazio publikoetako zerbitzuetatik kanporatuta ez dagoela eta eginkizun publikoetarako ezgaituta ez dagoela adierazten duen zinpeko aitortpena edo hitzemande.

Espainiako nazionalitatea ez duten hautagaiek, Espainiako Estatuari buruzko adierazpenaz gain, zinpeko adierazpena edo hitzemande aurkeztu behar dute, esanez ez daudela eginkizun publikoetarako desgaituta edo antzeko egoera batean, eta, orobat, haien estatuan, baldintza bere-tan, funtzio publikora sartzeari eragozteko moduko diziplina-zehapen edo baliokiderik ez dutela.

– Destinoa normaltasunez betetzeko behar den gaitasun psikofisikoa egiaztatzen duen azterketa medikoaren agiria, Osakidetza Zerbitzuak emana.

– Erantzukizunpeko adierazpena, Adingabearen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 13.5 artikulua betetzeari buruzkoa; eta Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiria lortzeko baimena, urriaren 13ko 1314/2016 Ebazpenean xedatutakoaren arabera. Ebazpen horren bidez, Osakidetzan adingabeekin ohiko harremana izatea dakarten lanpostuetan sartzeko eta jarduteko betekizunari buruzko jarraibide osagarriak onartzen dira.

Hirugarrena.– Emandako epe horretan aipatutako agiriekin bertaratzen ez direnak, edo, agiri horiek aztertuta antzematen bada betebeharren bat betetzen ez dutela, ezingo dira jabetu estatutupeko langile gisa esleitu zaien destinoaz. Ondorioz, deuseztatuta geratuko dira jarduerak, eta hori ez da eragozpena izango hasierako eskabidean faltsukeriaren bat jartzeagatik izan dezaketen erantzukizuna eskatzeko.

Era berean, interesdunei jakinarazten zaie lanpostuaz jabetzeko ekitaldira dagokien epearen barruan edo (hala badagokio) emandako luzapenean aurkeztu ezean, galdu egingo dituztela hautaprobei buruzko ebazpenetan aitortu zitzaizkien eskubideak.

Orain arte adierazitakoari jarraituz, dagokion izangaia lanpostuaz jabetzen bada, beharrezko eginbideak bete eta hurrengo egunean hasiko da lanean, dagokien zerbitzu-erakunde sanitarioan.

Laugarrena.– Hautaketa-prozesuko oinarri orokorretako 21. atalean ezarritakoaren arabera, Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako Administrazio Kontseiluari, hilabeteko epean, Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko otsailaren 12a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA ROSA PÉREZ ESQUERDO.

2021eko otsailaren 25a, osteguna

ERANSKINA
2016-2017KO OSAKIDETZAKO ENPLEGU PUBLIKORAKO ESKAINTZA
DESTINOEN ESLEIPENA
KATEGORIA: FAK. ESP. PSIKOLOGO-KLINIKO TEKNIKARIA
TXANDA: IREKIA

NAN/AIZ	Izangaia	Destino esleitua	Derrigortasun-data	
***6391**	Cruz Martinez, Estela	Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarea, Ospitalez kanpoko Haurren eta Nerabeen OMZ Bilbo	2HE	2013-12-03
***7992**	Belaunzaran Mendizabal, Jon	Gipuzkoako Osasun Mentaleko Sarea, Haur eta Nerabeen Zentroa Donostia	2HE	2010-12-27
***7278**	Perez Sayes, Ana Teresa	Gipuzkoako Osasun Mentaleko Sarea, Helduen Psikiatria Erreterria	2HE	2005-06-01
***7598**	Rodrigo Larrazabal, Iruñe	Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarea, Ospitalez kanpoko Helduen Psikiatria Basauri	2HE	2013-12-03
***3236**	Yañez Mendizabal, Maria Angeles	Gipuzkoako Osasun Mentaleko Sarea, Helduen Psikiatria Egia - Gros	2HE	2013-12-03
***9894**	Gonzalez Amor, Irache	Arabako Osasun Mentaleko Sarea, Arabako Osasun Mentaleko Sarea	2HE	2015-11-18
***9644**	Losada Leon, Noemi	Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESla, Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea	2HE	
***5468**	Caballero Martinez, Patricia	Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarea, Ospitalez kanpoko Barrualdeko eta Uribeko Eskualdeak – Lehen Episodioak	2HE	2013-12-03
***6573**	Ortiz Lapuente, Carmen Elena	Gipuzkoako Osasun Mentaleko Sarea, Helduen Psikiatria Zarautz	2HE	2011-06-30
***0744**	Pamparacuatro Martin, Isabel	Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarea, Ospitalez kanpoko Ezkerraldea - Psikiatria Helduak Zalla	2HE	2013-12-03
***0650**	Amenedo Oñate, Gotzon	Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarea, Ospitalez kanpoko Haur eta Neraben OMZ Barrualdea	2HE	2010-12-31
***8693**	Zarrazquin Arizaga, Saioa	Gipuzkoako Osasun Mentaleko Sarea, Arreta Goiztiarreko Zentroa	2HE	2016-12-03
***7048**	Cobos Alonso, Teresa De Jesus	Arabako ESla, Arabako Unibertsitate Ospitalea	2HE	
***1396**	Quecedo Urrutia, Maria Aranzazu	Bilbo-Basurtuko ESla, Basurtuko Unibertsitate Ospitalea	2HE	
***9510**	Rodriguez Pereira, Carolina	Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESla, Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea	2HE	
***5584**	Pla Garcia, Salvador	Arabako Osasun Mentaleko Sarea, Arabako Osasun Mentaleko Sarea	2HE	
***4830**	Lacunza Areta, Izargi	Gipuzkoako Osasun Mentaleko Sarea, Haur eta Nerabeen Psikiatria Arrasate	2HE	2008-06-01
***1996**	Narro Moreno, Laura	Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESla, Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea	2HE	
***1895**	Pablo Irache, Maria Angeles	Donostialdeko ESla, Donostiako Unibertsitate Ospitalea	2HE	
***0588**	De Los Mozos Macho, Vanesa	Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarea, Ospitalez kanpoko Ezkerraldea – Adikzioak Barakaldo	2HE	2013-12-03
***9587**	Ripalda Epelde, Andres	Gipuzkoako Osasun Mentaleko Sarea, Helduen Psikiatria Beasain	2HE	2013-12-03
***4430**	Perez Ayerra, Luisa	Gipuzkoako Osasun Mentaleko Sarea, Haur eta Gazteen Psikiatria Eibar	2HE	2011-06-01
***9509**	Cervello Alonso, Clara Jone	Gipuzkoako Osasun Mentaleko Sarea, Helduen Psikiatria Arrasate	2HE	2013-12-03
***6892**	Panera Uribe, Consuelo	Arabako ESla, Arabako Unibertsitate Ospitalea	2HE	

2021eko otsailaren 25a, osteguna

NAN/AIZ	Izangaia	Destino esleितua	Derrigortasun-data	
***5099**	Marañon Valbuena, Daniel	Gipuzkoako Osasun Mentaleko Sarea, Haur eta Nerabeen Psikiatria Zumarraga	2HE	2008-06-01
***0523**	Orozko Urarte, Zalao	Gipuzkoako Osasun Mentaleko Sarea, Helduen Psikiatria Azpeitia / Martuteneko espetxea	2HE	2016-12-03
***9038**	Torres Pousa, Sofia	Gipuzkoako Osasun Mentaleko Sarea, Tr. Opiazeoen Zentroa	2HE	